



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

Espediente zk./Nº Expediente: 2025SZUZ0007

Erreg. data/Fecha Reg: 2025/01/16

Erreg. zk. / Nº Registro: 000912

Gaia/Asunto: Kukai 2025 urteko dirulaguntza zuzena

Eskatzailea/Solicitante: ASOC CULTURAL KUKAI

NAN(IFK)/DNI(NIF): G20780870

Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA

DEKRETUA

DECRETO

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

ASOC CULTURAL KUKAI(e)k jarduerak sustatzen ditu Errenterian.

ASOC CULTURAL KUKAI promociona la actividad en el municipio de Errenteria.

Elkarte horrek ekintzak antolatzen ditu, herriaren kulturen nahiz herriaren izen onaren hedapenean eragina dutenak.

La mencionada asociación organiza actividades que repercuten en la vida cultural de la villa, así como en la difusión y buen nombre de la misma.

Udalak ekintza horiek interesgarritzat dituen heinean, bultzatzea erabaki zuen, diruz lagunduz. Helburu horrekin, aurtengo aurrekontuan partida bat sortu zuen elkartearen izenarekin.

El Ayuntamiento considera de interés las actividades que realiza la asociación citada, por lo que decidió fomentarlas mediante el otorgamiento de una subvención. Para ello, incluyó en el presupuesto del presente ejercicio una partida a nombre de la asociación.

Dirulaguntza aurreikusia dago dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta horretarako, KUKAI KULTUR ELKARTEAK urteroko proiektua aurkeztu beharko du.

La subvención está contemplada en el Plan Estratégico de subvenciones y sujeta a la presentación de los correspondientes proyectos por parte de KUKAI KULTUR ELKARTEA.

2025. urterako KUKAI KULTUR ELKARTEAK proiektu bat aurkeztu du 53.600,00 euroko aurrekontua duena.

Para el año 2025 KUKAI KULTUR ELKARTEA ha presentado un proyecto con un presupuesto de 53.600,00 euros.

Espedientearen jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, dirulaguntza ematearen aldekoak:

Constan en el expediente todos los informes necesarios, favorables al otorgamiento de la subvención:

- Kultura departamentuko teknikariak 2025eko martxoaren 27an emandako txostena.

- Informe del técnico de Cultura de fecha 27 de marzo de 2025 .

- Kontu-hartzaileak 2025eko maiatzaren 15a datan espedientearen fiskalizatu du,

- La interventora con fecha 15 de mayo de 2025 ha fiscalizado el expediente.

ZUZENBIDE OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Orokorrei buruzkoa.

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorreari buruzko Legearen Erregelamendua.

Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-).

Horregatik guztiatik, Udal honetako Alkateak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta aholkulari juridikoak espedientearen jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

EBATZI DUT

1.- KUKAI KULTUR ELKARTEARI 53.600,00 euroko dirulaguntza ematea, 2025. urtean bere proiektuak gauzatzeko.

2.- 2025ko urterako 53.600,00 euroko gastua baimentzea eta xedatzea, indarrean dagoen aurrekontuko 1 0830.481.03.334.10 2025 partidaren kontura, AD 1284-2025.

3.- Dirulaguntzaren ordainketa honela egingo da:

- %80, 42.880,00 euro, ebatzi eta hilabeteko epean.

- %20, 10.720,00 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren, betiere Udalak justifikazioa nahikotzat jotzen badu (sail edo azpisaileko teknikaria, kontuhartzailea eta dagokion zinegotzi delegatua).

4.- Ebazpen hau jakinaraztea onuradun elkarteari eta ezagutaraztea Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa Sailari. Era berean, Dirulaguntzen Datu Basera (BDNS) bidaltzea eta Udalaren gardentasun atarian

Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 150, de 10 de agosto de 2015).

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por el asesor jurídico a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Por la presente,

RESUELVO

1.- Conceder a la asociación KUKAI KULTUR ELKARTEA una subvención de 53.600,00 € para la ejecución de sus proyectos durante el año 2025.

2.- Autorizar y disponer para el año 2025 un gasto de 53.600,00 euros con cargo a la partida 1 0830.481.03.334.10 2025 del vigente presupuesto, AD 1284-2025.

3.- El pago de la subvención se realizará de la siguiente forma:

- 80%, 42.880,00 euros en el plazo de un mes desde la resolución.

- 20%, 10.720,00 euros una vez ejecutado el proyecto y tras la presentación de la justificación del mismo, siempre que dicha justificación sea considerada suficiente por el Ayuntamiento (el técnico del área o subárea, la interventora municipal y la concejala delegada correspondiente).

4.- Notificar esta resolución a la asociación beneficiaria y ponerla en conocimiento del Departamento de Hacienda y Desarrollo Económico. Asimismo, remitirla a la Base de Datos



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

argitaratzea dirulaguntzaren honako datuak:
zenbatekoa, xedea eta erakunde onuradunaren izena.

Nacional de Subvenciones (BDNS) y publicar en el portal de transparencia del Ayuntamiento los siguientes datos relativos a la subvención: importe, finalidad y nombre de la entidad beneficiaria.

**Dirulaguntza arautzen duten oinarriak
ERANSKINA I gisa eranstean dira.**

**Se adjuntan como ANEXO I las bases que
regulan la subvención.**

Erreterian, sinaduran agertzen den datan.

Erreteria, en la fecha de la firma.

Kultura zinegotzi delegatua / Concejala delegada de Cultura

Maite Gartzia Ontiveros



**ERRETERRIA
UDALA**
Kultura / Cultura

ERANSKINA I / ANEXO I

**ERRETERRIAKO UDALAK ZUZENKO
DIRULAGUNTZA EMATEA ERRETERRIAKO
KULKAI KULTUR ELKARTEARI**

AZALTZEN DUTE:

I.- Kukai Kultur Elkarte 2001eko urriaz geroztik Erreterrian gauzatzen ari den jardueraren helburuak ondorengoak direla:

- Euskal dantza tradizionalen oinarritutako sorkuntza garaikidea sustatzea.
- Publiko gaztearengan eta ikasleengan kultur zaletasuna sustatzea.
- Arte jardura ezberdinen arteko elkarlana sustatzea.
- Dantzatik abiatuta, herritarren artean kultur zaletasuna sustatzea eta herritarrek kulturarekiko sentsibilizatzea.
- Dantzari gazteei formazioa eskaintzea.
- Kultura-politika horizontal eta parte-hartzailea lortzen laguntzea.

II.- 2025. urterako erabaki da zuzeneko dirulaguntza nominatiboa Kukai Kultur tur Elkarteari ematea. Horretarako oinarritzat hartu da honako arauetan ezarritakoa:

- Erreterriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1.a) artikulua (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-) -aurrerantzean, Ordenantza-.

- azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) art. -aurrerantzean, Legea-.

KLAUSULAK:

Lehengoa: Dirulaguntza xedea

Dirulaguntza honen xedea da aldean eskubide eta betebeharrak finkatzea, emaniko diru-laguntzarekiko.

**SUBVENCIÓN DIRECTA CONCEDIDA POR EL
AYUNTAMIENTO A LA ASOCIACIÓN KUKAI
KULTUR ELKARTEA DE ERRETERRIA**

EXPONEN:

I.- Que los objetivos que Kukai Kultur Elkarte está realizando en la villa de Erreterria desde octubre de 2001 son los siguientes:

- Impulsar la creatividad contemporánea basada en la danza vasca tradicional.
- Impulsar los hábitos culturales entre el público joven y el alumnado.
- Impulsar la colaboración entre diferentes actividades artísticas.
- Partiendo de la danza, impulsar los hábitos culturales y la sensibilidad hacia la cultura, en general, entre la ciudadanía.
- Ofrecer formación a las y los bailarines jóvenes.
- Contribuir a una política cultural horizontal y participativa.

II.- Que se ha acordado conceder subvención directa nominativa a Kukai Kultur Elkarte para el años 2025, en base a lo dispuesto en:

- el artículo 11.1.a) de la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Erreterria (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 150, de 10 de agosto de 2015) -en adelante, la Ordenanza-.

- el art. 22.2 a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones -en adelante, la Ley-.

CLAUSULAS:

Primera: Objeto del subvención

El objeto de la presente subvención es el de establecer los derechos y obligaciones de ambas



ERRETERIA UDALA

Kultura / Cultura

Dirulaguntza horren xedea da .Kukai Kultur Elkartearen proiektua finantza dadin.

Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa

Dirulaguntza zuzenaren gehieneko diru-kopurua 53.600,00 eurokoa izango da, aurrekontuko 1 0830.481.12.334.10 2025 (8918) partidaren kontura. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da Errenteriako Udalaren Aurrekontua Orokorrean 2025. urterako.

Hirugarrena: Errenteriako Udalaren konpromisoak

Dirulaguntza honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) Kukai Kultur Elkarteari 53.600,00 euroko dirulaguntza ordainduko da, eta era honetan:

-- %80, 42.880,00 euro, ebatzi eta hilabeteko epean.

- %20, 10.720,00 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren.

b) Baimena ematea Kukai Kultur Elkarteari instalazio hauek erabiltzeko, Niessen eta Lekuona Fabrikarekin koordinatuta, beti ere erabiltzeko aukerarik badago.

- Dantza gela bat Kukai Kultur Elkartearen entseguak egiteko, betiere "Errenteria Musikal" Udal Musika eta Herri Arte Eskolaren ikastorduetatik kanpo, astelehenetik ostiralera eta asteburuetan, aldez aurretik jakinarazita eta baimenduta, .

- Hainbat material unean-unean gordetzeko erabiliko den espazio bat izatea.

- Auditorioa eta Lekuona Fabrikako Sorlekua. Espazio hau erabilgarritasunaren arabera eta Kultura Sailarekin bat etorritik erabiliko da, Kukai Kultur Elkarteari aukera izango du gela hauek

partes respecto a la subvención concedida para la financiación del proyecto cultural de Kukai Kultur Elkartea.

Segunda: Presupuesto y financiación

El importe de la subvención directa queda fijado en un máximo de 53.600,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1 0830.481.12.334.10 2025 (8918), prevista nominativamente en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Errenteria para el año 2025.

Tercera: Compromisos del Ayuntamiento de Errenteria

Los compromisos adquiridos por el Ayuntamiento de Errenteria en virtud de la presente subvención son los siguientes:

a) Abonar a Kukai Kultur Elkartea una subvención por importe de 53.600,00 euros, y de la siguiente forma:

- 80%, 42.880,00 euros, en el plazo de un mes desde la resolución.

- 20%, 10.720,00 euros, una vez ejecutado el proyecto y tras la presentación de la justificación del mismo.

b) Autorizar a Kukai Kultur Elkartea a utilizar las siguientes instalaciones, en coordinación con Niessen y Lekuona Fabrika, siempre sujeto a disponibilidad.

- Un aula de danza para los ensayos de Kukai Kultur Elkartea, siempre en horario no lectivo de la Escuela Municipal de Música y Danza Herri Arte Eskola, de lunes a viernes y fines de semana previa notificación y autorización .

- Disponer de un espacio que se utilizará para guardar diverso material de manera puntual.

- Auditorio y Sorlekua de Lekuona Fabrika. El uso de este espacio se realizará sujeto a disponibilidad y de acuerdo con el departamento de Cultura, teniendo Kukai Kultur Elkartea la



ERRENTERIA UDALA

Kultura / Cultura

erreserbatzeko, edo emankizunak prestatzeko edo Sentsibilizazio Programaren baitan dauden jarduerak erakusteko behar duenean erabiltzeko.

- Sorlekua utziko du urtero emanaldi bat egiteko. Gehiago izan daitezke alderdietako edozeinek proposatuta, eta biak ados jartzen badira jarduera horiek finantzatzeko moduei dagokienez.

Laugarrena: Dirulaguntzaren entitate onuradunak harturiko konpromisoak

Dirulaguntza honi jarraiki diru-laguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) Dantzaren proiektua garatuko du, aurkezturiko dokumentazioaren arabera.

b) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

c) Elkarrekin bere jarduera guztietan eta erabilitako komunikabideetan (irratia, prentsa, kartelak, esku egitarauak, e. A.) Errenteriako Udalaren laguntza aipatzea. Idatzizko komunikabideetan, gainera, "Errenteriako Udalaren laguntzarekin" esaldia agertuko da Herriko armariarekin eta "Kultura kreaktiboa" logoarekin batera. Baldintza hori Errenteriako Udala laguntzaile bakarra nahiz laguntzaile gehiago direnean bete beharko da. Azken kasu horretan aipatu esaldiak, erabilitako handienaren neurri bera izango du gutxienez.

d) Ordenantzaren 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Dirulaguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta dirulaguntza emateak

posibilidad de reservar estas salas, o cuando sea necesario para la preparación de sus espectáculos o exhibición de actividades del Programa de Sensibilización.

-Cederá el espacio Sorlekua para llevar a cabo una actuación anual, que podrán ser más a propuesta de cualquiera de las dos partes y si ambas partes se ponen de acuerdo en lo relativo a las formas de financiación.

Cuarta: Compromisos de la entidad beneficiaria de la subvención

Los compromisos adquiridos por la beneficiaria de la subvención en virtud de la presente de subvención son los siguientes:

a) Desarrollar el proyecto de danza a tenor de la documentación presentada.

b) Solicitar cuantos permisos municipales o de otra índole se requieran.

c) Hacer constar en la totalidad de las actividades que desarrolla la Asociación y en todos los medios de difusión utilizados (radio, prensa, carteles, programas de mano, etc.) la colaboración del Ayuntamiento de Errenteria, bajo la frase "con la colaboración del Ayuntamiento de Errenteria", añadiendo a dicha frase el escudo de la Villa y el logo "Kultura Kreaktiboa" en caso de difusión escrita. Requisito que se cumplirá tanto si el Ayuntamiento de Errenteria fuera único colaborador, como en el caso de que compartiera este patrocinio con diferentes colaboradores. En este último caso la frase antes referida será cuando menos de igual tamaño que el de la mayor que se utilizara.

d) Cumplir todas las obligaciones establecidas para los beneficiarios de subvenciones en el artículo 21 de la Ordenanza y el art. 14 de la Ley y, en especial, las siguientes:

- Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el



**ERRENTERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.

- Beste dirulaguntza batzuk jasotzen baditu dirulaguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.

- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.

- Jasotako diru-kopuruen aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

e) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.

f) Onuradunak, proiektua gauzatzeko, 15.000,00 euro edo gehiagoko zerbitzuak edo hornidurak kontratatzen dituenean (BEZik gabe) gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen. Nolanahi ere, salbuetsita geratuko dira, zerbitzu edo

cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

- Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano competente, aportando cuanta información sea requerida.

- Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación de los fondos percibidos.

- Acreditar (antes de la realización de cada uno de los pagos) que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la seguridad social.

- Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentación, debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de actuaciones de comprobación y control, es decir, en el plazo de cuatro años.

e) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 37 de la Ley.

f) Cuando la entidad beneficiaria, para ejecutar el proyecto, contrate servicios o suministros por 15.000,00 o más euros (IVA excluido) deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien (salvo que, por las



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

horniduraren ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan zerbitzu hori hornitzen edo ematen duten nahikoa erakunde ez badago, edo gastua egin bada dirulaguntza eskatu aurretik.

g) 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan aurreikusitako kausaren batean ez erortzea.

h) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: Dirulaguntzaren entitate onuradunak dirulaguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

Idatzari dagokionez:

-Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak elebietan egingo dira euskarari lehentasuna emanaz (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.

Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, euskarari lehentasuna emanda.

- Harremanak Administrazioarekin:

Diru-laguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen diela.

Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten

especiales características de los servicios o suministros, no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención).

g) No incurrir en alguna de las causas previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003.

h) Cláusulas relativas al uso de los idiomas oficiales: La entidad beneficiaria de la subvención en las comunicaciones llevadas a cabo en las actuaciones objeto de la subvención, respetará las siguientes directrices:

En lo que respecta a las comunicaciones escritas:

- Paisaje lingüístico:

Los rótulos, avisos, anuncios, tarjetas, publicidad y resto de comunicaciones se realizarán mediante pictogramas.

Cuando no pueda utilizarse un pictograma, los mensajes se redactarán en los dos idiomas, priorizando la versión en euskera (posición del texto, mayor tamaño de letra, negrilla). Previamente se consensuarán con el Ayuntamiento.

Los programas, anuncios, y avisos de las actividades objeto de la subvención que se publiquen y pongan a disposición de la ciudadanía se redactarán como mínimo en los dos idiomas oficiales, dando prioridad al euskera.

- Relación con la Administración:

En el momento de la tramitación de la solicitud de subvención se les solicitará que hagan el esfuerzo de mantener en euskera la relación oral y escrita con el Ayuntamiento, sin olvidar que la Ley 10/1982 de 24 de noviembre reconoce a la ciudadanía el derecho de comunicarse con la administración en los dos idiomas oficiales.

En lo que respecta a las comunicaciones orales:

Con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de las y los ciudadanos que quieran



ERRETERIA UDALA

Kultura / Cultura

diren jardueretan, oro har, eta bereziki haurrekin egiten direnetan aritzen direnek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.

Elkarteek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

i) Emakume eta gizonen berdintasunaren arloko betebeharrak:

1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena, eta 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritako printzipioak eta betekizunak betetzea.

Dokumentazioa guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

Ahal den neurrian, diru-laguntzaren helburuak bete direla justifikatzen duen memoriarekin batera,

komunikarse en euskera, se priorizará que quienes participen en las actividades que se realicen con la ciudadanía en general, y en particular en las que se realicen con las niñas y niños, tengan capacidad lingüística necesaria para comunicarse en los dos idiomas oficiales.

La propaganda, avisos, publicidad etc. que se realicen por altavoces se harán en los dos idiomas oficiales, dando en ese caso prioridad al euskera. Cuando las características de la actividad o de las personas que participen en ella así lo requieran se priorizará el uso del euskera.

Los mensajes emitidos mediante megafonía durante los actos concretos, así como la música y canciones, deberán cumplir esa condición.

Cuando se organice alguna conferencia o similar y la persona ponente no sepa euskera, se solicitará la presencia de una persona ayudante vascoparlante, al objeto de que se respeten los derechos de las personas que deseen utilizar el euskera.

i) Obligaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres:

Cumplir los principios y obligaciones establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres; y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipo sexistas, y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidad de género.

En la medida de lo posible, junto con la memoria justificativa del cumplimiento de los fines de la



ERRETERIA UDALA

Kultura / Cultura

erakunde onuradunak honako hauek aurkeztu beharko ditu, sexuaren arabera banakatuta: emandako zerbitzuaren azken erabiltzaileak eta erakundearen eta plantillaren titularrak, bai eta diru-laguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den erakundearen plantilla ere, hala badagokio.

j) Ingurumenaren eta klimaren arloko betebeharrak:

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak, bere egoitzan eta dirulaguntzaren xede diren jardueretan, ingurumenjarraibide hauek beteko ditu:

- Hondakinen kudeaketa eta bilketa zatikiak bereizita egin behar dira: ontzi arinak, paper-kartoia, biohondakina, errefusa, beira, hondakin elektronikoak, hondakin toxiko eta arriskutsuak, tamaina handikoak...

- Ordu eguzkitsuetan pertsianak eta leihatilak irekitzea, eguzkiaren beroa aprobetxatzeko. Gauez, berriz, hobe da ixtea, barruko beroa gal ez dadin (negua)

- Erradiadoreen gainazalak garbi eduki behar dira. Ez dira inoiz estali behar, ezta beroa transmititzea zailtzen duten altzariak edo oztopoak jarri ere (negua).

- Berogailuaren tenperatura erregulatzeko termostatoak eta erloju programagarriak erabiltzea (negua).

- Erabili behar ez diren geletako erradiadoreak itxita edukitzea (negua).

- Ekipo elektronikoak, berokuntza, argiztapena eta aire girotua itzaltzea, gelak hutsik geratzen direnean.

- Erabili ondoren txorrotak beti itxi, ur beroa xahutu gabe.

- Garraio publikoa eta bizikleta erabiltzea edo oinez ibiltzea sustatuko da, ibilgailu pribatuaren aurrean. -

subvención, la entidad beneficiaria deberá aportar desglosada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado y las personas titulares de su entidad y de su plantilla, así como de la plantilla de la entidad que se haya contratado, en su caso, para la prestación del servicio objeto de la subvención.

j) Obligaciones en materia de Medio Ambiente y Clima:

La entidad beneficiaria de la subvención en su sede y en las actividades objeto de la subvención, respetará las siguientes directrices ambientales:

- La gestión y recogida de los residuos se debe efectuar separando selectivamente las diferentes fracciones: envases ligeros, papel-cartón, materia orgánica, rechazo, vidrio, residuos electrónicos, residuos tóxicos y peligrosos, voluminosos,....

- Abrir las persianas y las contraventanas durante las horas soleadas para aprovechar el calor del sol. Durante la noche, en cambio, es mejor cerrarla

- Es necesario mantener limpias las superficies de los radiadores. No se deben cubrir nunca, ni situar muebles u obstáculos que dificulten la transmisión de calor (invierno).

- Utilizar termostatos y relojes programables para regular la temperatura de la calefacción (invierno).

- Mantener cerrados los radiadores de los recintos que no se ocupen (invierno).

- Apagar los equipos electrónicos, calefacción, iluminación y de aire acondicionado cuando las dependencias queden vacías (anual).

- Cerrar siempre los grifos tras su uso, no derrochando agua caliente.

- Se priorizará permanentemente el uso del transporte público, la bicicleta o a pie, frente a la utilización del automóvil privado.



ERRETERIA UDALA

Kultura / Cultura

Bostgarrena: Dirulaguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa

Errenteriako Udalak, Kultura azpisaileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta diru-laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak Udalean aurkeztu beharko du dirulaguntzak xede duen proiektu/jardueren garapenaren memoria bat, **datorren urteko urtarilaren 31a baino lehenago**. Bertan buruturiko jardueren azalpen memoria bat egingo da eta horien erregistro grafikoa, izaniko diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordain-agirien edo dokumentuen kopia bat.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Pertsona fisikoei egiten zaizkien ordainketak, lan harremanik ez dagoen kasuetan, hurrengo moduetako batean egin beharko dira:

1) Dietak edo gastuen konpentsazio ekonomikoak (garraioa, otarrekoak, alojamentua, besteak): "jaso dut" agirien bidez eg

2) Emandako zerbitzuengatik bestelako ordainketak: faktura edo balioa duten bestelako dokumentuekin egin beharko dira. Zerga atxikipena egingo da eta Foru Ogasunean sartu (190 agiria), pertsona fisiko bati egindako ordainketen batuketa 300 (hirurehun) euro edo handiagoa denean. Egiaztatu beharko da dirua sartu dela.

3) Atxikipen eta diru-sartze hori egiaztatu beharko da, ere, emandako sariekiko, bere kopurua 300 (hirurehun) euro edo gehiagokoa denean.

Quinta: Seguimiento y justificación de la subvención.

El Ayuntamiento de Errenteria, mediante la Técnico del subárea de Cultura, llevará a cabo el seguimiento y comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

La entidad beneficiaria de la subvención deberá presentar en el Ayuntamiento una memoria de desarrollo del proyecto/actividades objeto de la subvención, **antes del 31 de enero del próximo año**. En dicha memoria se hará una exposición valorativa de las actividades llevadas a cabo y registro gráfico de los mismo, incluyendo un balance de los gastos e ingresos habidos, así como copia de las facturas o documentos justificativos de los gastos efectuados.

Los gastos se acreditarán mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa.

Los pagos realizados a personas físicas con las que no medie relación laboral deberán revestir alguna de las siguientes modalidades:

1) Abono de dietas o compensación económica por gastos (transporte, comida, alojamiento u otros): se realizará mediante "recibí". Se adjuntará los documentos justificativos de los gastos.

2) Otros abonos por la prestación de servicios: se realizarán contra factura o documento válido. Se realizará la correspondiente retención tributaria e ingreso en la Hacienda Foral (documento 190) siempre que la suma del importe de los abonos a una persona física sea igual o superior a 300 (trescientos) euros. Deberá acreditarse dicho ingreso.

3) Dicha retención e ingreso deberá acreditarse también respecto a los premios cuyo importe sea igual o superior a 300 (trescientos) euros.



ERRETERIA UDALA

Kultura / Cultura

4) Ordainketak banku transferentzia bidez egingo dira. Ezingo dira 2.500 (bi mila eta bostehun) euro edo gehiagoko ordainketak esku diruz egin (edo kopuru txikiagokoak, legez horrela xedatzen bada).

Jarduerak, dirulaguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako dirulaguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Zuriketan sartu ahal izango dira langile-gastuak. Gastu horiek izango dira ordainsarien gastuak (PFEZaren konturako atxikipena barne) eta ordainsari-gastu horiei dagokien Gizarte Segurantzako enpresa-kuota. Aipatutako gastuak zuriketan sartu ahal izateko aurkeztu beharko dira langileen nominak, ordainketen egiaztagiria, PFEZaren atxikipenak ordaindu izanaren egiaztagiria, kotizazioen likidazioaren ordainagiria eta langileen zerrenda.

Seigarrena: Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin.

Hitzarmen honek arautzen duen dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, dirulaguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako dirulaguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo dirulaguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa,

4) Todos los pagos deberán realizarse vía transferencia bancaria, sin que puedan realizarse pagos de importe igual o superior a 2.500 (dos mil quinientos) euros -o importe menor que se establezca legalmente- en metálico

Cuando las actividades hayan sido financiadas, además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

Se podrán incluir en la justificación los gastos de personal. Son gastos de personal los salariales (incluida la retención a cuenta del IRPF) y la cuota empresarial de la Seguridad Social correspondiente a dichos gastos salariales. A tal fin, se deberán aportar las nóminas del personal, junto con los correspondientes justificantes de pago y los documentos acreditativos del ingreso de las retenciones del IRPF, así como y el recibo de liquidación de cotizaciones (RLC) y la relación nominal de trabajadoras/es.

Sexta: Compatibilidad con otras subvenciones públicas.

La subvención regulada por este acuerdo será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de otras administraciones o entes públicos o privados.

Sin embargo, la presente subvención es incompatible con la percepción de otras subvenciones o ayudas provenientes del Ayuntamiento de Errenteria y/o sus organismos autónomos para la misma finalidad, de forma que la entidad beneficiaria renuncia a cualquier tipo de ayuda o subvención que le pudiera corresponder conforme a las convocatorias de subvención que se realicen desde los diferentes departamentos del Ayuntamiento o sus organismos autónomos.

En cualquier caso, el importe de las ayudas



ERRENTERIA UDALA

Kultura / Cultura

bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan dirulaguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

Zazpigarrena: Dirulaguntza zuzenaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, dirulaguntza zuzenaren akordio hau aldatzea ezarritako epeak zabaltzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Udalak dirulaguntza zuzenaren akordion hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

Zortzigarrena: Dirulaguntza zuzenaren akordio ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du dirulaguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzaren 23. eta 37. artikuluetan eta Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo

concedidas no podrá ser en ningún caso de tal cuantía que, aislada o conjuntamente, supere el coste del objeto de la subvención.

Séptima: Modificación de las condiciones de la concesión de subvención directa.

La entidad beneficiaria de la subvención podrá solicitar al Ayuntamiento, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones del presente acuerdo de subvención directa que supongan ampliación de plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando tengan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

El Ayuntamiento podrá modificar el presente acuerdo de subvención directa, previa comunicación a la persona beneficiaria y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tomadas en cuenta para la aprobación del presente acuerdo impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido, y no se irroguen perjuicios económicos a la persona beneficiaria.

Octava: Incumplimiento y reintegro del acuerdo de subvención directa.

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones de la entidad beneficiaria de la subvención supondrá la revisión o resolución de la misma, y en su caso, la disminución o devolución de la cantidad otorgada, en los términos previstos en los artículos 23 y 37 de la Ordenanza y 37 y siguientes de la Ley, sin perjuicio de las responsabilidades que se pudieran exigir.

Para graduar los incumplimientos se utilizará el criterio de proporcionalidad.

Cuando no se pudiera o no interesara proseguir el desarrollo del trabajo por causas inherentes a la



ERRENTERIA UDALA

Kultura / Cultura

izaerari atxikiriko arrazoiak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute dirulaguntza bertan behera uztea edo etetea.

Bederatzigarrena: Datu pertsonalak babestea

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarrikoak betetzea.

Hamargarrena: Lan arriskuen prebentzioa

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

Hamaikagarrena: Araubide Juridikoa

Akordio honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Akordio honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarrikoak uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Hamabigarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa

viabilidad o naturaleza del proyecto u otras debidamente justificadas, se podrá resolver o interrumpir la subvención de mutuo acuerdo.

Novena: Protección de datos personales

En el caso de que se lleve a cabo tratamiento de datos de carácter personal, ambas partes acuerdan dar cumplimiento a lo dispuesto por el Reglamento Europeo 2016/679, de 27 de abril, relativo al tratamiento de los datos personales, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre.

Décima: Prevención de riesgos laborales.

La entidad beneficiaria de la subvención, en el desarrollo del proyecto o actividades subvencionadas, cumplirá con la normativa vigente en materia de prevención de riesgos laborales, Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y normativa de desarrollo.

Undécima: Régimen jurídico

El presente acuerdo es de carácter administrativo, por lo que su interpretación y desarrollo se regirá por lo establecido en la ordenamiento jurídico-administrativo.

En todos los aspectos que no hayan sido establecidos en el presente acuerdo, se aplicará la legislación vigente en el ámbito administrativo y, en particular, lo establecido en la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria, en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006 de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público. Subsidiariamente, se aplicarán las normas de derecho privado.

Duodécima: Jurisdicción competente



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena

Serán competentes para resolver los litigios que pudieran surgir entre las partes los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastian, de forma que ambas partes aceptan la competencia territorial de los mismos.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025SZUZ0007-DEKRETUA/DECRETO (BENGOETXEA,IGLESIA,DE LA XABIER)